

Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa

Emitzen analisia

Aurkibidea

1. SARRERA	2
2. EMAITZEN AURRERAPENA	4
3. OSPITALEEZ KANPOKO ZENTROAK	5
4. ASISTENTZIA-JARDUERA. ADIERAZLEAK	6
Asistentzia-zentroen arabera	8
Biztanleen eta urtearen arabera	8
5. LANGILEAK. ADIERAZLEAK	9
Langileen indizeak, zentroen arabera	11
Mediku kopurua, biztanleen arabera	12
6. GASTUA ETA FINANTZAKETA	12

Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa


1. Sarrera

Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa, ospitaletako estatistika, asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika eta ospitaleetako erikortasun-estatistika 2005/2008 Euskal Estatistika Planean jasotzen diren osasun eta jazarre babeseke estatistiketan sartzen dira.

EUSTATEk Osasun Sailaren laguntzarekin eta 1985. urteko datuak erabiliz egin zuen Ospitaleez Kanpoko lehenengo Estatistika. Harrezkero, erakundearen helburu nagusia beti izan da Euskal Autonomia Erkidegoko sare publikoan (Osakidetza, mutuak eta udalak) lehen mailako arreta eta arreta espezializatua, anbulatorio-erregimenean, ematen duten zentroetako jardura sanitarioari buruzko informazio eguneratua ematea.

Hamarkada honetan (1994-2003), ospitaleez kanpoko zentro publikoek emandako asistentzia-jarduera etengabe gehitu da. Izan ere, aldi horretan kontsulta medikoen kopurua¹ %7,4 gehitu da: 1994. urtean 11,7 milioi eta 2003. urtean 12,6. Bestalde, biztanleka eta urteka banatutako kontsulta kopuruaren adierazlearen arabera, biztanleek zerbitzu medikoak gehiagotan erabili dituzte; 1994. urtean biztanle bakoitza, batez beste, 5,6 aldiz joaten zen mendikuarengana, baina kopuru hori 6,1eraino gehitu zen 2003. urtean.

1. grafikoa: Euskal AEko ospitaleez kanpoko sektorean biztanle bakoitzeko izan diren kontsultak. 1994-2003



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa

Osasun inkestan² zerbitzu sanitarioak gehiago erabili direla ikusten da. Inkesta horretan jasotzen diren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1992. urtean pertsona bakoitzak 6 bisita egin zituen medikuarenera; 1997. urtean bisita kopurua 7raino gehitu zen eta 2002. urtean 7,3raino.


1. Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika. www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp.

2. Iturria: Osasun Saila. 2002ko Osasun Inkesta. Lehenengo emaitzak. Inkestan, gainera, mediku pribatuek jaso duten bisita kopurua ere jasotzen da.

Estatuan ere ematen da biztanleek zerbitzu sanitarioak gero eta gehiago erabiltzeko joera. Informazio Sanitarioko Institutuaren arabera³ 2002. urtean biztanle bakoitza, batez beste, 6,1 aldiz joan zen lehen mailako arreta ematen zuen medikuarengana (medikuntza orokorra eta pediatria). Datu horiek 1994. urtekoekin alderatuta (5,4) mediku horiei egindako bisitak, termino erlatiboetan, %13 gehitu ziren.

Ospitaleez kanpoko sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua ere gehitu da hamar urte horietan; 1994. urtean 6.671 pertsonak lan egiten zuten sektore horretan eta 2003. urtean 6.966 pertsonak. Horrek, bada, sektoreko langile kopurua %4,4an gehitzea eragin du. Aldi horretan zehar, dena den, mediku kopuruak izan du gehikuntzarik handiena (%5,5); erizain eta pertsonal ez-sanitarioen kopuruak gehikuntza txikiagoa izan dute (%4,2 eta %3,9, hurrenez hurren).

2. grafikoa: Ospitaleez kanpoko urteko gastuaren eta BPGaren aldaketa (uneko prezioetan)



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

(*) BPGaren iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak.

Ospitaleez kanpoko arreta publikoa ordaintzera bideratutako gastuari dagokionez, 1994-2003 azken aldian (2002. urtean salbuetsita) sektoreak izan duen bilakaeran euskal ekonomia (BPG) baino hazkunde-erritmo txikiagoa izan da eta, ondorioz, ospitaleez kanpoko sektoreak BPGan egindako ekarpena ere murriztu egin da: BPGaren %0,90ekoa 1994. urtean baina %0,71ekoa 2003. urtean.

1. taula: Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa. Aldagai nagusien bilakaera

	2003	2002	Δ% 03/02	1994	Δ% 03/94(*)
Gastua, guztira (euroak, milakoetan)	335.144	323.169	3,7	230.196	4,3
--Gastu arruntak	327.817	307.114	6,7	222.186	4,4
---Ordainsariak	279.323	262.432	6,4	197.664	3,9
---Bestelako gastu arruntak	48.494	44.682	8,5	24.522	7,9
--Kapital-gastuak	7.327	16.055	-54,4	8.010	-1,0
Kostua, biztanleko (euroak)	163	157	3,8	110	4,5
Laguntza-jarduera					
Kontsultak, guztira (milaka)	12.608	12.401	1,7	11.734	0,8
Medikuntza orokorreko kontsultak (milaka)	8.727	8.630	1,1	8.068	0,9
Pediatria-kontsultak (milaka)	1.482	1.429	3,7	1.275	1,7
Familia-mediku bakoitzeko kontsultak (batez beste)	6.220	6.213	0,1	6.283	-0,1
Pediatra bakoitzeko kontsultak (batez beste)	5.164	5.086	1,5	4.411	1,8
Langileak, guztira	6.966	6.874	1,3	6.671	0,5
--Familiako medikuak	1.403	1.389	1,0	1.284	1,0
--Pediatriak	287	281	2,1	289	-0,1
--Especialistak	1.013	1.013	0,0	988	0,3
--Gainerako osasun-langileria	2.842	2.808	1,2	2.742	0,4
--Gainerako langileria	1.421	1.383	2,7	1.368	0,4

Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

(*) Urteroko batez besteko tasa metatua.

2. Emaizten aurrerapena


2003. urteko datu nabarmenenak hauexek ditugu:

- 2003. urtean ospitaleez kanpoko osasun sare publikoak 440 asistentzia-zentro zituen, 2002. urtean baino bat gehiago.
- 2003. urtean ospitaleez kanpoko osasun sare publikoan 12,6 milioi kontsulta mediko izan ziren, hau da, aurreko urtean baino %1,7 gehiago.
- 10,2 milioi kontsulta mediko lehen mailako arretakoak izan ziren (aurreko urtean baino %1,5 gehiago): 8,7 milioi medikuntza orokorrekoak eta 1,5 milioi pediatriakoak.
- Termino erlatiboetan, pediatriako kontsultak (%3,7) medikuntza orokorrekoak (%1,1) baino gehiago izaten jarraitzen dute.
- 2,4 milioi kontsulta mediko gainerako espezialitateetakoak izan ziren (2002an baino %2,4 gehiago).
- Traumatologia, tokoginekologia, psikiatria eta oftalmologia izan ziren espezialitate bisitatuena; baina errehabilitazioak eta urologiak izan zuten gehikuntzarik handiena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle bakoitza 6,1 aldiz joan zen urtean medikuarengana, pediatriara jo zuten biztanleen bisitak gehiago izanik (6,7 aldiz).
- Euskal osasun-sistema publikoak, 2003. urtean, 335 milioi euro bideratu zituen ospitaleez kanpoko osasun-asistentziarako; aurreko urtearen aldean, %3,7 gehiagoko gastuarekin.
- 2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko osasun-gastua, BPGaren %0,71ekoa izan zen, eta biztanle bakoitzeko gastua 163 €-koa (aurreko urtean baino %3,8 gehiago).
- Ospitaleez kanpoko sektoreko enplegua, dedikazio osoko baliokidetasunari dagokionez (DOB), %1,4 gehitu zen.

3. Ospitaleez kanpoko zentroak

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko sare publikoan 440 asistentzia-zentro izan ziren, 2002. urtean baino bat gehiago, 2003. urtean osasun-zentro berria ireki baitzen. Lurraldeka, ospitaleez kanpoko zentroak honelaxe banatzen dira: Araban 77 zentro, Bizkaian 234 zentro eta Gipuzkoan 129.


3. grafikoa: Euskal AEko ospitaleez kanpoko zentro publikoen banaketa, lurraldeka (%) eta eskualdeka



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.
 (*) Eskualdeetan probintziako hiriburuak ere sartzen dira.

Emandako zerbitzuen arabera, osasun-zentro mota bi daude; batetik, landa nahiz hiri inguruneetan osasun-sisteman biztanleek dituzten lehen mailako zentroak: zentro periferikoak edo mediku-etxeak (118), osasun-zentroak (108) eta kontsultategiak (52). Eta bestetik, laguntza-zentro berezi eta espezializatuagoak: adimen-osasuneko kontsultategiak (50), mutuetako laguntza-zentroak (44), larrialdietako zerbitzuak (37), ambulatorioak (28) eta beste batzuk (3).

4. grafikoa: Ospitaleez kanpoko zentroyen banaketa, eurok ematen dituzten zerbitzuen arabera



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

Azken hamar urteetan zentro kopuruak izan duen bilakaera aintzat hartuta, 2003. urtean 1994. urtean baino hamabi zentro gutxiago izan dira. Baina beharpen hori itxurazkoa da, 1999. urtean plangintzako zentroak jasotzeko irizpideak aldatzearen ondoriozkoa izan baita. Ordura arte ospitaleez kanpoko estatistikan bereiztuta agertzen ziren zentro hauek osasun-zentroyen barruan sartu ziren; hori dela eta, zentro kopurua nabarmen gutxitu zen: 1998. urtean 442 zentro zeuden eta 1999. urtean 426. Ordutik eta 2003. urtera arte 14 zentro gehiago dago, mutuetako 8 laguntza-zentro berri, 7 osasun-zentro⁴ eta adimen-osasuneko 4 zentro irekitzearen ondorioz.

4. Asistentzia-jarduera. Adierazleak

2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko zentro publikoetan izan ziren kontsultak, aurreko urtearekin erkatuta, %1,7 gehitu ziren. Ospitaleez kanpoko 440 zentroetan, guztira, 12,6 milioi kontsulta medikori eman zitzaizen arreta.

Ikuspegi funtzionaltetik, ospitaleez kanpoko laguntza publikoan arreta emateko bi maila nagusi bereizten dira: batetik lehen mailako arreta (medikuntza orokorra eta pediatria), biztanleak osasun-sistemara heltzeko lehen maila gisa, eta bestetik arreta espezializatu, espezializazio handiagoko eskatzen duten osasun-arazo eta patologia berezi eta konplexuetarako.

2003. urtean 10,2 milioi kontsulta medikori eman zitzaizen arreta lehen mailako arretako esparruan, ospitaleez kanpoko asistentzia-jardueraren %81ari, alegia. Horietatik, 8,7 milioi medikuntza orokorrekoak izan dira eta 1,5 milioi pediatriakoak. Aurreko urtean bezala, pediatriak (%3,7) medikuntza orokorrak (%1,1) baino jarduera gehiago izan du. Azken hamar urteetako ibilbidearekin jarraituz, pediatriako kontsultak %16,3 gehitu dira, medikuntza orokorrekoak (%8,2) baino bi aldiz gehiago.


4. Kontsultategiak osasun zentro bihurtzearen ondorioz, osasun zentroyen kopuruak gora egin du eta kontsultategi kopuruak behera

Anbulatorioetako arreta espezializatuari dagokionez, ospitaleez kanpoko zentroetan kanpoko 2,4 milioi kontsultari eman zitzaizen arreta. Hona hemen jarduera gehien izan zuten espezialitateak: traumatologia (490.944 kontsultarekin), tokoginekologia (326.493), psiquiatria (272.679) eta oftalmologia (233.410). Aurreko urtearekin alderatuta, hala ere, errehabilitazioa eta urologia izan ziren jardueren ehunekoetan gehikuntza handienak izan zituztenak: %8,1 eta %7,5, hurrenez hurren.

Azken hamar urteetan (1994-2003), bai lehen mailako arretak eta bai arreta espezializatuak ere jarduera gehiago izan dute; alabaina, lehen mailako arretak izan du (%9,3) arreta espezializatuak (%0,3) baino gehikuntza handiagoa.

Bestalde, arreta espezializatuaren⁵ antolaketa aldatzean espezialisten kontsultak pixka bat gehitu dira; hain zuzen, ospitaleko asistentziaren osasun-zerbitzuak ospitaleetan bertan eman dira eta zerbitzu espezializatuak ospitaleetatik kanpo. Eta ospitaleek⁶ izan duten bilakaera da horren erakusgarri, 1995-2002 artean kanpoko kontsultak asko gehitu baitziren (%+21).

5. grafikoa: Ospitaleez kanpoko zentroetan eta ospitale publikoetan arreta espezializatu emateko kontsultek izan duten bilakaera (1995-2002) (milakotan)



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

Iturria: Eustat. Ospitale estatistika.

Dena den, ospitaleez kanpoko zentroetan dauden espezialitate guztien artean ezberdintasunak daude, azken hamarkadan denek ez baitute izan gutxitzeko joera. Horrela, urte horietan (1994-2003) errehabilitazioak (%+141), psiquiatriak (%+33,5), urologiak (%+23,3), ginekologiak (%+27,8) edo traumatologiak (%+6,5) gehikuntza handiak izan dituzte.


5. 194 eta 195/1996 Dekretua, uztailaren 23koa, lehen mailako arretarako eta arreta espezializaturako Osakidetza atxikitako baliabideen antolamenduzko egiturari buruzkoa.

6. Iturria: Eustat. Ospitale estatistika. www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp.

Asistentzia-zentroen arabera jarduera

Ospitaleez kanpoko esparruan zentro gehienek dituztenak kategoriatan bakarrean taldekatzen badira (osasun-zentroak, kontsultategiak eta zentro periferikoak - mediku-etxeak), kategoriatan horrek ospitaleez kanpo emandako arretaren %68,8 izan zuen 2003. urtean. Gainerako %31,2 hurrengo arretan banatu zen: ambulatorioetan %20,3, larrialdietako zerbitzuetan (%5,2), lan-istripuetako mutuetako asistentzia-zentroetan (%3,1), adimen-osasuneko zentroetan (%2,2) eta beste batzuetan (%0,3).

6. grafikoa: Kontsulta medikoak, ospitaleez kanpoko zentroen arabera (%), 1994 eta 2003 urteetan



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.


Zentroaren arabera, hamar urte horietan (1994-2003) kontsulta medikoen bilakaera ezberdina izan da. Aldi horretan, mutuetako asistentzia-zentroek eta larrialdietako zentroek bi aldiz jarduera gehiago izan dituzte. Lehenengo kasuan, zentro berriak ireki zirelako eman zen gehikuntza hori. Bigarren kasuan, aldiz, LAZa (Larrialdiak Artatzeko Zerbitzua) berriz egituratzearekin eta larrialdietako unitateak (1984. urtean) sortzearekin batera gertatu zen; hain zuzen, honen ondorioz laguntza emateko ordutegia eta etxeetan eta bide publikoan emateko den premiazko laguntza zabaldu egin behar izan dira.

Aldi horretan, gainera, adimen-osasuneko zentroak eta osasun-zentroak bezalako ospitaleez kanpoko beste zentro batzuetako jarduera ere gehitu zen, baina besteetan baino gutxiago (%58,3 eta %23,2, hurrenez hurren).

Biztanleen eta urtearen arabera kontsulta kopurua

Biztanleen eta urtearen arabera kontsulta kopuruaren adierazlea, hau da, medikuarengana joateko maiztasunaren indizea da biztanleek osasun-baliabideak nola erabiltzen dituzten ezagutzeko modurik onena.

7. grafikoa: Biztanle bakoitzeko kontsulta-kopuruaren bilakaera, ospitaleez kanpoko zentroetan 1994-2003



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle bakoitza batez beste 6,1 aldiz joan zen medikuaren kontsultara Baina mediku orokorrari egindako bisiten batezbestekoa 4,2ra murriztu da. 14 urte baino gutxiagoko biztanleen artean, aldiz, bisita horiek gehitu egin dira, hauek batez beste 6,7 aldiz joan batirira medikuarengana (2002. urtean 6,5 aldiz). Gainerako espezialisten kasuan, biztanle bakoitzak 1,1 kontsulta egin zituen.

Estatuan, Sistema de Información Sanitaria en España (SISAN)⁷ delakoaren arabera, Espainiako osasun publikoaren erabiltzailea urtean batez beste 6 aldiz joaten da medikuarengana; eta Osasunaren Munduko Erakundeak ezarritako 3 bisitako estandarra bikoizten duenez bere osasun-zerbitzuak maizegi erabiltzen dituela azaldu du.

Lurreldeka, Bizkaiak dauka medikuarengana joateko batezbesteko handiena (6,4), gero Arabak (6,2) eta azkenik Gipuzkoak (5,7). 14 urtetik beherako biztanleei dagokienez, ordea, Arabako biztanleak izan ziren pediatararengana gehienetan joan direnak (7,1), gero Bizkaikoak (6,9) eta azkenik Gipuzkoak (6,3).

1994-2003 aldirian biztanle bakoitzak egindako kontsulta medikoaren kopuruaren bilakaera ikusita, biztanleek medikuen zerbitzuak gero eta gehiago erabiltzen dituztela esan daiteke. Hain zuzen, medikuarengana joateko maiztasunaren indizea %8,9raino gehitu da: 1994. urtean medikuari 5,6 bisita egin zitzaizkion eta 2003. urtean 6,1.


5. Langileak. Adierazleak

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko sektorean 6.966 pertsonak lan egiten zuten 2003. urtean, hau da 2002. urtean baino 92 pertsona gehiagok. Lanbideen arabera, 5.545 pertsona (%79,6) osasun-laguntzaileak ziren eta 1.421 (%20,4) asistentzia-zentroaren zuzendaritza, kudeaketa eta mantentzearekin lotutako jarduera ez-sanitarioko langileak.

Halaber, pertsonal sanitarioen %48,8 medikua zen, %40,7 erizaina, %6 klinika-laguntzailea eta %4,5 beste mota bateko pertsonal sanitarioa.

Pertsonal ez-sanitarioen %5,7 (goi mailako eta maila ertaineko titulatuak) zuzendaria eta kudeatzailea zen, %58,7 administraria, %21,4 zelaria eta %14,2 osasun-zentroa mantentzen eta garbitzen zuen langilea.

8. grafikoa: Langileen banaketa lanbide-kategoriaren eta sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.


2002. urtearekin erkatuta, eta pertsonal sanitarioa dedikazio osoko baliokidetasunarekin (DOB) kontuan hartuta, sektore honetan lan egiten zuen pertsona kopurua %1,4 gehitu zen. Gehikuntza hori ez zen hain nabarmena izan medikuen (%0,8) eta beste pertsonal sanitario batzuen (%1,2) artean; aitzitik, pertsonal ez-sanitarioen gehikuntza handiagoa izan zen, aurreko urtean baino %2,8 gehiago izan baitziren lanean.

Ospitaleez kanpoko sektorean lehen mailako arreta kopuruak duen garrantziarekin bat etorritik, medikuen artean gehienak familiako medikuak (1.403) eta pediatriak ziren (287), mediku guztien %62,5 osatuz. Gainerako %37,5 mediku espezialistak dira, eta horien artean gehienak psikiatriak (%4,7), traumatologiak (%4,7) eta tokoginekologoak (%4).

Beste sektore sanitario batzuetan gertatzen den bezala, ospitaleez kanpoko sektorean lan egiten dutenen artean emakumeak dira nagusi; alde batetik, eraizaintzan oraindik gehienak emakumeak dira eta, bestetik, medikuen artean ere gero eta emakume gehiago dago.

Irakaskuntzaren estatistikan⁸ jasotakoaren arabera, azken zortzi ikasturteetan (1995/1996-2002/2003) medikuntza karrera amaitu duten gehienak emakumeak izan dira, %78 inguru. Izan ere, emakumeen nagusitasun hori ospitaleez kanpoko esparruan lan egiten duten medikuen artean ikus daiteke. 2003. urtean sektore horretan lan egiten zuten medikuen %47,2 emakumea zen; are gehiago, familiako medikuntzan eta pediatrian gehienak emakumeak ziren.

9. grafikoa: Langileen banaketa, ospitaleez kanpoko zentro-motaren arabera



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa

Enpleguaren ehuneko handiena osasun-zentroetan eman zen (%41,8), gero ambulatorioak (%24,6) eta tarte handiarekin larrialdietako zerbitzuak (%8,6), lan-istripuetako mutuetako osasun-zentroak (%7,2), adimen-osasuneko zentroak (%6,8) eta kontsultategiak (%6,7). Gainerako zentroek enpleguaren %4,3 zuten.

1994-2003 aldian, asistentzia-zentroen arabera enpleguak bilakaera ezberdinak izan ditu. Ambulatorioak (espezialitateen zentroak) gero eta gehiago daude ospitaleen mendean, eta medikuntza orokorra eta pediatria osasun-zentroetara bideratzen dira; ondorioz, ambulatorioetan gero eta enplegu gutxiago egon da (%-21,8).

Aitzitik, batez ere lehen mailako arreta ematen duten zentroetan %32,3 gehitu da langile kopurua aldi horretan eta egun enplegu gehien duten osasun-zentroak dira.

Langileen indizeak, zentroen arabera

Ospitaleez kanpoko estatistikaren langileen indizeak azaldutakoaren arabera, pertsonal ez-sanitario bakoitzeko 3,9 pertsonal sanitario daude; mediku bakoitzeko 0,80 erizain, mediku bakoitzeko 0,10 klinika-laguntzaile eta erizain bakoitzeko 0,10 laguntzaile.

Baina kopuru horiek zentroaren arabera aldatu egiten dira. Batez ere lehen mailako arreta ematen duten zentroetan (osasun-zentroetan, kontsultategietan eta zentro periferikoetan) mediku bakoitzeko 0,90 erizain daude gutxi gorabehera; mutuetako laguntza-zentroetan mediku bakoitzeko 1,20 erizain daude, baina arreta espezializatua ematen duten zentroetan (ambulatorioetan, adimen-osasuneko zentroetan) 0,70raino murrizten da kopuru hori.

Bestalde, azken hamar urteotatik bereziki azpimarratu behar da larrialdietako zentroetan mediku bakoitzeko erizain kopurua gehitu egin dela (1994. urtean 0,65ekoa zen eta 2003. urtean 0,80koa), eta gehikuntza hori batez ere larrialdietako taldeak sortzean eman da (ambulantzia medikalizatuak, mediku eta erizainekin).

Mediku kopurua, biztanleen arabera


Adierazle honen bidez, osasun publikoak ospitaleez kanpoko laguntzarako batez beste bideratzen dituen baliabide terapeutikoak erakusten ditu: 2003. urtean 761 biztanle bakoitzeko mediku 1 zegoen.

Lehen mailako arretari dagokionez, 2003. urtean mediku orokor bakoitzak 1.466 biztanle zituen bere kargura, eta pediatra bakoitzak 14 urtetik beherako 769 biztanle. Azken hamarkadan (1994-2003) kopuru horiek pixkanaka gutxitzen joan dira %10,4 eta %16raino hurrenez hurren; lehenengo kasuan medikuen kopurua gehitzearen ondorioz eman da gutxitze hori eta bigarren kasuan 14 urtetik beherako biztanle kopurua gutxitzeren ondorioz eman da.

Medikuei kontsulta gehien egiten dizkieten artean adina aintzat hartuta, adierazle horien arabera, familiako mediku bakoitzak 65 urtetik gorako 274 biztanle ditu bere kargura eta pediatra bakoitzak urte biko edo gutxiagoko 171 ume.

Arreta espezializatuan, aitzitik, joera ezberdinak daude. Urte horietan zehar errehabilitazioan, estomatologian, psikiatrian, urologian eta traumatologian mediku bakoitzeko biztanle kopurua gutxitu egin da; gainerako espezialitateetan kopuru hori gehitu egin da, arestian azaldu bezala, azken urteetan espezialistak ospitaleen mendean daudelako eta, beraz, horien kopurua gutxitu egin delako.

10. grafikoa: Biztanle-kopuruaren bilakaera, fakultatibo bakoitzeko 1994-2003



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa

Nolanahi ere, mediko bakoitzeko biztanle kopurua gutxitu egin bada ere kontsulta kopurua ez da gutxitu; beraz argi dago osasun publikoaren erabiltzaileak gero eta gehiago jotzen duela osasun-zerbitzuetara.


6. Gastua eta finantzaketa

Euskal osasun-sistema publikoak 335 milioi euro bideratu zituen 2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleez kanpoko sare publikora, hau da aurreko urtean baino %3,7 gehiago. Diru kopuru horren %97,8 (328 milioi euro) gastu arruntetarako izan ziren (langileen gastuak (%85,2), erosketak (%6,3), kanpoko zerbitzuak (%6,2), beste gastu arrunt batzuk (%2,3), eta gainerako kopurua (7 milioi euro) inbertsioko gasturako izan ziren (%2,2).

2002. urtearekin erkatuta nabarmentzekoa da ordezkoen gastuek izan duten gehikuntza (%12,4koa) eta inbertsioetarako gastuek izan zuten beherapen handia; izan ere partida honek 2002. urtean gehikuntza handia izan zuen eta orain aurreko urteetako kopuruetan gelditu da gutxi gorabehera.

Azken hamarkadan partida horiek izan zuten bilakaera aintzat hartuta, ehunekoen aldetik beste gastu arruntak (erosketak eta kanpoko zerbitzuak) izan dira gehikuntza handiena izan dutenak %51arekin (1994. urteko prezio finkotan). Langileen gastuak (handienak) %7,9 gehitu ziren urte horietan (prezio finkoetan).


11. grafikoa: Gastu osoaren bilakaera (mila eurotan) 1994ko prezio finkoetan



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

Dena den, azken hamarkadan gastu osoaren banaketak ez du gorabehera handirik izan. Izan ere, gastu arruntak gastu osoaren %96,5 ziren 1994. urtean eta hamar urte geroago %97,8. Era berean, gastu arruntan barruan, langileen gastuak %85,9koak ziren 1994. urtean eta 2003. urtean %83,3koak.


12. grafikoa: Gastuen partiden bilakaera (mila eurotan) prezio finkoetan. Indize kopurua, 1994. urtea oinarritzat hartuta



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

Bestalde, ospitaleez kanpoko laguntza gisa, biztanle bakoitzeko 163 euroko gastua izan zen, 2002. urtean baino %3,8 handiagoa. Aurreko hamarkadan zehar, biztanle bakoitzeko gastua %48,2 gehitu zen uneko preziotan (eta %13,1 prezio finkotan). Horrek esan nahi du azken hamar urteetan gehikuntza etengabe eta modu jarraituan eman dela.

**13. grafikoa: Biztanleko guztizko gastuaren bilakaera (euroak).
Uneko prezioak eta prezio finkoak**



Iturria: Eustat. Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa.

Sarreraren partidei dagokienez, ospitaleez kanpoko sektore publikoak 2003. urtean 370 milioi euro baino gehiago jaso zituen; kopuru ia guztia Osasun Sailak emandakoa zen, berau izan baitzen sektorearen finantzaketa-iturri nagusia sarrera guztiaren %90etik gorako ekarpenekin. Gainerako sarrerak lan-istripuetako mutuek emandakoak (%8) izan ziren eta, neurri txikiagoan izan bazen ere, udalen edo aldundien, aseguru-entitate pribatuen, finantza-sarreraren eta abarren bidez ustiapenerako diru-laguntza gisa lortutakoak. Azken hauek, hala ere, ez ziren %1era heldu.